



EBAZPENA, 2011EKO MAIATZAREN 25KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIARENA, HORREN BIDEZ BEHIN BETIKO EBAZPENA EMAN ZAIO ESKOLA TXIKIETAN IRAKASLE LANPOSTUETAN ARITZEKO ZERBITZU EGINKIZUNETAKO DEIALDIARI.

2011eko apirilaren 12an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariak emandako Ebazpenaren bidez deia egin zen, eskola txikietan irakasle lanpostuetan aritzeko hainbat lanpostu zerbitzu eginkizunetan betetzeko.

2011eko maiatzaren 17an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariak emandako Ebazpenaren bidez behin-behineko ebazpena eman zitzaion deialdiari, eta hiru egun balioduneko epea ireki zen erreklamazioak egiteko.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta eta aurkeztu direnak aztertu ondoren, bidezko da deialdiari behin betiko ebazpena ematea.

Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT

Argitaratzea Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-oholetan eta Saileko web orrialdean I. Eranskinean jaso den deialdiaren behin-betiko emaitza

ERREKURTSOAK

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuak, bere 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2011eko maiatzaren 25an.

Juan Manuel Aramendi Arteaga
Langileriaren Kudeaketa Zuzendaria



**LANDA ESKOLA/ESKOLA TXIKIAK (2011-2012 IKASTURTEA)
 ESCUELAS RURALES (CURSO 2011-2012)
 EBAZPENA / RESOLUCIÓN
 GIPUZKOA**

HERRIA MUNICIPIO	IKASTETXEA CENTRO	LANPOSTUA PUESTO	IRAKASLEAK PROFESORES/AS
ABALTZIZKETA	TXALBURU	GORPUTZ HEZKUNTZA	ALONSO IRIARTE, Gorka NAN: 72451481
OLABERRIA	OLABERRIA	GORPUTZ HEZKUNTZA	RABADAN IZAGIRRE, Koldo NAN: 35776489N
ZESTOA	AIZARNA	HAUR HEZKUNTZA	ARREGI ITURZAETA, Teresa NAN: 15985078D
ZESTOA	AIZARNA	INGELES	ARANBURU BASTERRETXE, Estibaliz NAN:30686695A

BIZKAIA

CENTRO/IKASTETXEA	PUESTO/LANPOSTUA	APELLIDOS Y NOMBRE IZEN-ABIZENAK
ARRANKUNDIAGA.- CEIP ARRANKUNDIAGA HLHI	AHOLKULARI/CONSULTOR	FERNANDEZ MAIZTEGUI, IRATXE ANA